

**.../... DEKRETUA, .....-KOA, GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAN DOANEKOAK EZ DIREN PRESTAZIOEN ETA ZERBITZUEN FINANTZAZIOAN ERABILTZAILEEK PARTE HARTZEKO IRIZPIDE OROKORREI BURUZKOA.**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen IV. Tituluan arautzen da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema finantzatzeko eredia, eta bere finantzazio-iturrien artean aurreikusten dira, 54. artikuluan, erabiltzaileek zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak edo tasak.

Legearen Zazpigarren Xedapen Iragankorra betetz, Dekretu honen xedea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren doanekoak ez diren prestazioen eta zerbitzuen finantzazioan erabiltzaileek eta ordaindu beharra duten pertsonak parte hartzeko irizpide orokorrak arautzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 57. artikulua baitan eta kontuan hartuz Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuak zer dioten prestazioak eta zerbitzuak doan izateaz edo ez izateaz.

Dekretuaren xedea da Legearen aurreikuspenak garatzea, zerbitzuak emateaz arduratutako administrazio publikoek prezio publikoak edo tasak finkatzeko duten autonomia zabala errespetatuz. Administrazio publiko horiek, gainera, beren arautegia moldatu beharko dute, bai eta araututako irizpide orokorrak aplikatu ere. Halaber, erregulazioa bat dator Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legearen estatu-xedapenekin, bai eta Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistemari buruzko Lurralde Kontseiluaren akordioekin (onuradunaren gaitasun ekonomikoa erabakitzeari buruzkoak, eta hark Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistemaren prestazioetan parte hartzeko irizpideari buruzkoak).

Dekretu hau aplikatuko zaie Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuak koordaindu beharrezkotzat jotako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sartutako prestazio eta zerbitzu guztiei. Xedapen orokorren bidez erabakitzen da nork ordaindu behar duen, eta mugatzen dira erabiltzaileen bizikidetzaren unitatea eta erabiltzaileekiko mendetasun ekonomikoa duten bizikidetzaren unitateko kideak. Oinarri moduan, erabiltzailearen baliabide ekonomikoen maila ezin da izan zerbitzuak jasotzeko oztopo, eta, erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoaren muga gisa, norberarentzako kopuru minimo bat bermatzen da. Prezio publikoa erabakitzeko orduan aintzat hartuko da, prestazioaren eta zerbitzuaren motaz eta kostuaz gain, prestazioen eta zerbitzuen erabilera-maila desberdinak. Era horretan, prestazioak eta zerbitzuak emateko eskumena duten administrazio publikoek modu partzialean aplikatu ahal dituzte prezio publikoak. Era berean, administrazio horiek salbuespenak edo hobariak eman ahal izateko irizpide nagusiak finkatzen dira. Ondoren, ordaindu beharra duten pertsonen gaitasun ekonomikoa baloratzen da, haien errentaren eta ondarearen arabera, diru-sarrera eta ondare konputagarriak erabakiz. Azkenik, Legearen aurreikuspenak jorratzen dira adinekoen egoitzak finantzatu ahal izateko, bai eta zorra aitortzeko prozedurak artikulatzeko modua ere, ordainketa partzialki atzeratzeko aukera emanez.

Erregulazio horrek erabiltzailearen baliabide ekonomikoen mailara egokitzen du ordaindu beharra dutenen parte-hartze ekonomikoa, zuzentasunari begira, eta batez ere aintzat hartzen du desgaitasunen bat dutenen eta haien familien egoera ahula, kolokan jarri baitaitezke beren bizi osoko baliabideak. Desgaitasunen bat duten

pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, botere publikoek diskriminazioaren kontrako neurriak eta ekintza positiboko neurriak hartuko dituzte, desgaitasunen bat duten pertsonak aukera berdinak izan ditzaten. Ekintza positiboko neurri horiek izan daitezke laguntza osagarriak eta arauak, irizpideak eta praktika mesedegarriagoak. Ildo horretan, desgaitasunen bat dutenen ekarpen ekonomikoari buruzko salbuespenak agertzen dira artikuluetan.

Horri jarraiki, Enplegu eta Gizarte Gaietarako sailburuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak aurrez eztabaidatu eta onartuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren .....ko .....ren .....(e)ko batzarraren ildotik,

## **XEDATU DUT**

### **I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua.- Xedea.**

Dekretu honen xedea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren doanekoak ez diren prestazioen eta zerbitzuen finantzazioan erabiltzaileek eta ordaindu beharra duten pertsonak parte hartzeko irizpide orokorrak arautzea.

#### **2. artikulua.- Aplikazio-eremua**

1.- Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroaren arabera doanekoak ez diren eta, beraz, prezio publiko edo tasa bat duten Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzu guztiei aplikatuko zaie dekretu hau.

2.- Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistemaren barruko prestazioei eta zerbitzuei dagokienez, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legea beteko da, bai eta hura garatzeko eta aplikatzeko emandako xedapenak ere. Dena dela, administrazio publiko bakoitzak aurreikuspen mesedegarriagoak finkatu ahal ditu erabiltzaileentzat, Autonomiarako eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema hobetzeko 2012ko uztailaren 10eko Lurralde Kontseiluaren Akordioako bigarren akordioko hamaikagarren hobekuntza-proposamenaren arabera, onuradunaren gaitasun ekonomikoa eta ekarpena finkatzeko arautegiari buruzkoa.

3.- Erabiltzailearen baliabide ekonomikoen maila ezin da izan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik baztertzeko arrazoi, eta ez du eraginik izango zerbitzuen esleitzea, intentsitatea, modalitatea eta kalitatea erabakitzeko orduan.

#### **3. artikulua.- Ordaindu beharra duten pertsonak**

Gizarte Zerbitzuen Legeko 57.6 artikulua arabera, prezio publikoa ordaindu beharko dute, edo hobariak aplikatu ondorengo zenbatekoa, honako hauek:

- a) Erabiltzaileek, hau da, zerbitzua jasotzen duten pertsona fisikoek.
- b) Erabiltzaile horiek adingabeak edo juridikoki ezgaitutako pertsonak badira, guraso-ahala edo tutoretza duten pertsonak, eta, edozein kasutan, auzitegi eskudunaren ebazpenaz erabiltzailearen ondasunak kudeatzeko izendatutako pertsonak, edo Agintaritza Judizialaren aginduz ordaindu beharra duten

pertsonak. Juridikoki ezgaitutako pertsona helduen kasuan, haien errentaren eta ondarearen kargura egingo da ordainketa.

- c) Zerbitzua jasotzeko eskabidea egin aurreko bost urteetan erabiltzaileak doan emandako ondare bat edo batzuk jaso duten pertsonak. Ordaindu beharrekoa gehienez ere izango da jasotako ondasunaren edo eskubidearen balioa: ondasun higiezinak direnean katastroko balioa eta ondasun higigarriak direnean merkatuko balioa, betiere zorra exijitutako unekoa. Ez da halakorik aplikatuko ondarea jaso duen pertsonak desgaitasunen bat duenean edo besteren mende, baztertuta edo babesik gabe dagoenean, eta ondare hori denean ohiko etxebizitza bat eskuratzeko bide bakarra.

#### **4. artikulua.- Bizikidetzaren unitatea eta mendetasun ekonomikoa**

1.- Dekretu honen ondorioetarako, bizikidetzaren unitatea osatuko dute erabiltzaileak gehi pertsona hauek:

- a) legez banandu gabeko ezkontidea edo izatezko bikotekidea, ohiko elkarbizitza bat dagoelarik.
- b) adingabeko seme-alabak, emantzipatuak izan ezik.
- c) judizialki ezgaituta eta guraso-ahal luzatuaren edo birgaituaren mende dauden, edo ekonomikoki erabiltzailearen mende dauden seme-alaba adinez nagusiak.

2.- Desgaitasunen bat duten erabiltzaileen kasuan, aipatutako horiez gain, bizikidetzaren unitatearen parte dira: aita eta ama; anai-arreba adingabeak; eta anai-arreba adinez nagusiak eta diru-irabazirik ez duten senide adingabeak, baldin eta, bi kasu horietan, egiaztatzen badute bizikidetzaren unitateko pertsonaren baten mende daudela ekonomikoki, eta etxebizitza berean bizi direla.

3.- Dekretu honen ondorioetarako, erabiltzailearekiko mendetasun ekonomikoa dago baldin eta bizikidetzaren unitateko kide bakoitzaren urteko diru-sarrerek ez badute gainditzen Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata, eta ez badute ondarrerik, balio berezirik gabeko ohiko etxebizitzaz gain. 65 urtetik beherako desgaituren bat duten bizikidetzaren unitateetan mendetasun ekonomikorik dagoen ikusteko orduan, ez da kontuan hartuko ondarrerik dagoen.

4.- Dekretu honen ondorioetarako, ohiko etxebizitza da, pertsonaren edo bizikidetzaren unitatearen ohiko bizilekua eta helbide fiskala denaz gain, harekin batera doan garajea edo trastelekua; eta ohiko etxebizitza landatarra bada, hari erantsitako lursail landatarra. Etxebizitza batek ohikoa izateari utziko dio baldin eta titularraren egoitza edo ostatu batean sartzen bada behin betiko, non eta ez diren etxebizitzan geratzen bizikidetzaren unitateko pertsona bat edo batzuk.

## **II. KAPITULUA.- PREZIO PUBLIKOA ERABAKITZEA**

### **5. artikulua.- Norberarentzako urteko zenbateko minimoa**

1.- Gizarte Zerbitzuen Legeko 57.8 artikuluan aipatutako norberarentzako zenbateko minimoa bermatzeko, behar adina murriztuko da prezio publikoa. Urteko gaitasun ekonomikoa ez denean iristen norberarentzako zenbateko minimora, ez da prezio publikorik ordaindu behar.

2.- Eskumena duten udal-, foru- edo autonomia-zerbitzuek urtero erabakiko dute, arautegia betez, zerbitzu bakoitzeko norberarentzako zenbateko minimoa.

3.- Norberarentzako zenbateko minimoa txikiagoa izango da ostatuetan edo egoitzetan.

4.- Zerbitzuaren erabiltzailea bizikidetzaren unitatea denean, norberarentzako zenbateko minimoa bider unitate horretako kideen kopurua egingo da.

## **6. artikulua.- Prezio publikoa erabakitzeko irizpideak**

Gizarte Zerbitzuen Legeko 57.3 artikulua betez, prezio publikoa erabakitzeko orduan aintzat hartuko da:

- a) Prestazioaren eta zerbitzuaren mota eta kostua. Hori horrela, prestazio eta zerbitzu bakoitzaren prezio publikoa finkatuko da kontuan hartuz aurreko ekitaldian zerbitzua eman zuen erakundearentzako batez besteko kontzertazio-, hitzarmen- edo kontratazio-kostua, eta salbuespenak eta hobaria egon daitezke arrazoi sozialengatik, ongintzagatik edo interes publikoagatik.
- b) Erabiltzaileak zerbitzuaz baliatzeko aukerak. Hala, kontuan hartuko da zerbitzuak aldi berean, modu partzialean edo behin-behinean erabiltzeko aukera, bai eta prestazio jakin bat jasotzeko aukera ere, eta modu partziala esaten zaio zerbitzu bat aurrekusi baino gutxiago erabiltzeari.

## **7. artikulua.- Prezio publikoaren aplikazio partziala**

1.- Prestazioen eta zerbitzuen eskumenak dituzten euskal administrazio publikoek prezio publikoei buruzko xedapenetan adieraziko dituzte prezio publikoa modu partzialean aplikatzeko irizpideak zerbitzua erabiltzeari uzten zaionean; aldi berean, modu partzialean edo behin-behinean erabiltzen direnean; eta haietan adierazitako beste edozein kasutan.

2.- Eguneko zerbitzuen edo zentroen, gaueko zentroen, ostatuen eta egoitzen erabiltzailea aldi baterako ez badago, eskumena duten euskal administrazio publikoek absentzia horren arabera murriztuko dute prezio publikoa.

3.- Zerbitzu baten erabilera aldi baterako eteten den bakoitzean, urte osoan zenbat egun salbuetsi ahal diren finkatu behar da, eta etenaldi hori aurreikusteko modukoa denean, erabiltzaileak edo haren ordezkari legalak horren berri eman behar dute aurrez eta idatziz.

4.- Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroko zerbitzuak aldi berean erabiltzen direnean, gutxienez haietako batengatik ordaindu beharreko prezio publikoa murriztu ahal da, baldin eta erabiltzaileak haietako bakoitza eskuratzeko eskubidea badu, eta erabilera konbinatu hori agindu badu erreferentziako profesionalak.

## **8. artikulua.- Salbuespen-kasuak**

1.- Zerbitzuak emateko eskumenak dituzten euskal administrazio publikoek salbuespenak egin ahal dituzte arrazoi sozialengatik, ongintzagatik edo interes publikoagatik, behar bezala frogatuz gero erreferentziako profesionalaren txosten bidez.

2.- Edozein kasutan, zerbitzuen erabiltzaile ez diren ordaindu beharra duten pertsonak prezio publikoa ordaintzetik salbuetsiko dira, baldin eta hala eskatzen badute eta beren urte osoko errenta-maila indibiduala Lanbide Arteko Gutxienezko Soldata baino bi aldiz txikiagoa dela frogatzen badute, eta ez badute ondarrerik, balio berezirik gabeko ohiko etxebizitzaz gain.

3.- Zerbitzuak emateko eskumenak dituzten euskal administrazio publikoek salbuespenak eskatzeko aukeraren berri eman behar diete erabiltzaileei.

### **9. artikulua.- Hobariak**

1.- Zerbitzuak emateko eskumenak dituzten administrazio publikoek arautzen badute zerbitzu horiek hobariak jaso ditzaketela, ordaindu beharra duten pertsonak hobariak jaso ditzakete prezio publikoetan, hala eskatzen badute eta prezio publiko osoa ordaintzeko modurik ez dutela frogatzen badute.

2.- Hobariak erabakitzeko orduan aintzat hartuko da ordaindu beharra dutenen gaitasun ekonomikoa, prestazioen eta zerbitzuen izaera eta haien erabilera.

3.- Bizikidetz-unitatean erabiltzaile bat baino gehiago dagoenean zerbitzu batean edo gehiagotan artatuta eta desgaitasunen bat duena, erabiltzaile bakoitzak prezio publiko txikiagoa ordaintzen duen pertsonaren zenbatekoa ordainduko du prezio publiko bezala.

4.- Desgaituei zuzendutako zerbitzuen erabiltzaile batek adinduentzako eguneko, gaueko edo egoitza-zentro edo zerbitzu batera sartzen denean, desgaituentzako dagokion eguneko, gaueko edo egoitza-zentroko edo zerbitzuko prezio berbera ezarriko zaio.

5.- Zerbitzuak emateko eskumenak dituzten administrazio publikoek hobariak eskatzeko aukeraren berri eman behar diete erabiltzaileei.

## **III. KAPITULUA - GAITASUN EKONOMIKOA ERABAKITZEA**

### **10. artikulua.- Gaitasun ekonomikoa baloratzea**

1.- Erabiltzailearen gaitasun ekonomikoa erabakitzeko, eta prezio publikoan izango duen parte-hartzea erabakitzeko, urteko errenta eta ondarea baloratu behar da, baina ez da ondarrerik baloratuko desgaitasunen bat duten 65 urtetik beherakoengan eta haien bizikidetz-unitateetan.

2.- Gaitasun ekonomikoa neurtuko da urteko errenta gehi ondarearen ehuneko jakin bat eginda, eta ehuneko horiek aldatuz joango dira erabiltzailearen adinaren arabera. Bere kasuan, hortik ateratako zenbatekoa zati bizikidetz-unitateko kideen kopurua egingo da.

3.- Ondare aldakorraren ehunekoa handituz joango da erabiltzailea zenbat eta zaharragoa izan, eta hiru adin-tarte egongo dira: 35 urtetik beherakoak; 35-65 urte artekoak; eta 65 urtetik gorakoak. Zerbitzuaren erabiltzailea bizikidetz-unitate denean, unitateko pertsonarik zaharrenaren ondarearen ehuneko aldagarria hartuko da kontuan, eta hortik ateratako zenbatekoa haztatu egingo da bizikidetz-unitatearen tamainaren arabera.

4.- Kasu hauetan bakarrik hartuko dira kontuan bizikidetz-unitatearen baliabide ekonomikoak:

a) Zerbitzuaren erabiltzailea bizikidetzaren unitatea bada. Hala, zerbitzu baten erabiltzailea bizikidetzaren unitatea da baldin eta hango kide bat baino gehiago badira onuradunak.

b) Unitate horretako kideak zerbitzuaren onuradunaren mende badaude ekonomikoki.

c) Zerbitzuaren onuraduna adingabea bada.

Kasu horietan, bizikidetzaren unitatearen errentak eta ondareak batzetik ateratako zenbatekoa zati kideen kopurua egingo da.

5.- Desgaitasunen bat duen erabiltzailea bakarrik bizi dela frogatu eta haren gaitasun ekonomikoa neurtze aldera, errentaren batura zati 1,5 kide egingo da.

## **11. artikulua.- Errenta erabakitzea**

1.- Gaitasun ekonomikoa zehazte aldera, errenta neurtzeko orduan aintzat hartuko dira etekin eta eskubide ekonomiko hauek:

a) Norberaren edo besteren kontura egindako lanaren etekinak.

b) Funts publikoen eta pribatuen kargura doazen pentsioen eta diru-laguntzen etekinak.

c) Kapital higigarriaren eta higiezinaren etekinak.

d) Beste edozein eskubideren etekinak.

2.- Etekin eta eskubide horiek kalkulatzeko orduan kontuan hartuko dira Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergako arauak. Errenta kalkulatzeko, kontuan hartuko da prezio publikoa kalkulatu aurreko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren deklarazioa, edo ekitaldi berekoa, Zerga Administrazioak hura baldin badauka. Dena dela, deklarazioa aurkeztu ez bada, edo beste datu eguneratu batzuk badaude, adibidez pentsioei edo beste diru-laguntzei buruzkoak, dauden datu guztiak kontuan hartuz kalkulatu da prezio publikoa.

3.- Errenta erabakitzeko orduan ez dira konputatuko prestazio hauek, autonomiarako eta mendekotasunari arreta ematea sustatzeko estatu-arauei ildoko berekoak:

a) baliaezintasun handiaren osagarria, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 139.4 artikuluan arautua;

b) % 75eko edo hortik gorako desgaitasuna duen 18 urtetik gorako seme-alabaren diru-esleipena;

c) beste pertsona baten beharragatik elbarritasun-pentsioa; eta

d) Desgaitasuna duten Pertsonak Gizarteratzeko apirilaren 7ko Legeko hirugarren pertsona bat laguntzearen saria.

Egoitzen eta ostatuaren kasuan, aipatutako laguntzak errentaren konputuan sartuko dira.

Nolanahi ere, prestazio horiek erabili ahal dira prezio publikoaren % 100era arte ordaintzeko, baldin eta zerbitzu baten onuraduna horietako baten titularra bada.

4.- Errenta erabakitzeko orduan, ez dira konputatuko erabiltzailea titularra den edo sortu ahal dituen desgrabazio fiskalak, ez eta elikagai-pentsioa ordaintzeko edo pentsio osagarriak ordaintzeko zenbatekoak ere, baldin eta ezkontide ohiei edo seme-alaba adingabeei atxiki bazaizkie ebazpen edo epai judizial bidez.

5.- Gurasoen eta seme-alaben akordioz etekinen konpututik kendutako prestazio, diru-laguntza, osagarri, sari edo ordainketa horien helburua prestazioa eragiten duen

hirugarren pertsona bati mesede egitea denean, pertsona hori izango da diru-sarrera ez-konputagarri horren titularra.

## **12. artikulua.- Etekinak neurtzeko arauak, erabiltzailearen arabera**

1.- Zerbitzuaren erabilera indibiduala denean, erabiltzailearen urteko errenta hartuko da kontuan. Hori neurtzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Erabiltzailea bakarrik bizi bada edo ekonomikoki haren mende ez dauden pertsonekin, bere urteko errenta izango da bere etekinen batura.
- b) Erabiltzailea bizikidetzaren unitate baten barruan badago, irizpide hauen arabera kalkulatu da urteko errenta indibiduala:
  - Ezkontidea edo izatezko bikotekidea duenean, bien etekinen baturaren erdia izango da urteko errenta indibiduala.
  - Aurreko atalean sartzan ez diren bizikidetzaren unitateko beste kide batzuk erabiltzailearen mende badaude ekonomikoki, bizikidetzaren unitatearen etekin osoak zati unitateko kideen kopurua izango da urteko errenta indibiduala.

2.- Zerbitzuaren erabiltzailea bizikidetzaren unitate bat denean, kide guztien etekinak batu eta unitatearen tamainaren arabera haztatuko dira.

## **13. artikulua.- Ondarea kalkulatzeko**

1.- Erabiltzailearen ondarea edo zerbitzua erabiltzen duen bizikidetzaren unitateko kideen ondarea osatzen du eskura dagoen azken deklarazioaren urtean titular diren ondasun eta eskubide ekonomiko guztiak, ken balioa murrizten duten kargak eta zamak, ken erantzun beharreko zor eta obligazio pertsonalak. Halaber, zerbitzua eskatu aurreko bost urteetan erabiltzaileak edo zerbitzua erabiltzen duen bizikidetzaren unitateko edozein kidek doan eskuratutako ondareen zenbatekoak ere konputatuko dira.

2.- Ohiko etxebizitza konputatuko da balio berezia duenean, Eusko Jaurlaritzak ezarritako balioen arabera. Halakoetan, ondarearen barruan konputatuko da katastroko gainbalioa.

3.- Titularkidetasuna dagoenean, ordaindu beharra duten pertsonen jabetzaren ehunekoa bakarrik hartuko da kontuan.

4.- Ez da konputatuko desgaitasunen bat duten 65 urtetik beherakoen ondarea ez haien bizikidetzaren unitatearena.

5.- Desgaitasunen bat dutenen ondarea babesteko eta Kode Zibila eta Zerga Araudia helburu horrekin aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legearen baitan, ez dira konputatuko bereziki babestutako ondare bati gehitutako ondasunak eta eskubideak, non eta ondare horren titularra ez den zerbitzua erabiltzen duena, erabilera hori behin betikoa delarik, pertsonaren bizi-premiak asetzeko balio baitu, 41/2003 Legeko 1.1. eta 5.4. artikuluen arabera.

## **14. artikulua- Dokumentazioa**

1.- Ordaindu beharra duten pertsonak eta erabiltzailearen bizikidetzaren unitateko kideek nahi hainbat dokumentu aurkeztu ahal dituzte beren gaitasun ekonomikoa ongi neurtzeko, bai eta salbuespenen edo hobarien eskubidea neurtzeko ere. Administrazio

publikoek neurri egokiak hartuko dituzte beren esku dauden datuak eta dokumentuak berriro aurkeztu beharrik ez izateko.

2.- Administrazio publikoek bide elektronikoak erabiliko dituzte informazio hori jasotzeko, baldin eta, datu pertsonalen kasuan, interesdunen baimena edukiz gero, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, edo lege mailako arau batek hala xedatuz gero.

3.- Administrazioari fitxategi publikoetako datu ekonomiko informatizatuak eskuratzeko baimena ukatuz gero, edo beharrezko dokumentazioa aurkezten ez bada, ordaindu beharra dutenek prezio publiko osoa ordaindu beharko dute.

#### **15. artikulua.- Ofizioz berrikustea eta jakinarazi beharra**

1.- Ordaindu beharreko prezio publikoak ofizioz berrikusi ahal dira, edo interesdunak edo haren ordezkariak eskatuta berrikusi ahal dira, bai maila indibidualean bai orokorrean. Berrikuspen horien ondorioz prezio publikoa aldatu ahal da, baldin eta prezio publikoa erabakitzeko erreferentziatzat hartutako gaitasun ekonomikoa aldatu egin dela egiaztatzen bada.

2.- Hala, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio edo zerbitzu bat jasotzen dutenek berehala jakinarazi behar dute bizikidetz-egoera, egoera zibil, bizileku, errenta edo ondarearen edozein aldaketa, gertatu den datatik gehienez 30 egun naturaleko epean.

3.- Administrazio publiko eskudunak jakiten badu erabiltzailearen gaitasun ekonomikoa aldatu dela eta aldaketa hori ez bada behar bezala jakinarazi aurreko paragrafoan adierazi bezala, esleitutako prezio publikoa berrikusi eta egoera berrira egokituko da. Prezio publiko berriak eragina izango du egoera aldatu zen datara arte.

### **IV. KAPITULUA – FINANTZAZIO-AUKERAK, ORDAINKETAREN ATZERAPEN PARTZIALAK ETA ZORRA AITORTZEA**

#### **16. artikulua- Finantzazio-aukerak eta ordainketaren atzerapen partzialak**

1.- Gizarte Zerbitzuen Legeko 57.9 artikuluaaren arabera, adinekoentzako egoitzetako eta ostatueta erabiltzaileek ez dutenean prezio publikoak edo tasak ordaintzeko adina diru-sarrerara, baina horretarako balia dezaketen ondare bat dutenean, finantzazio-aukerak adostu ahal dira administrazio publiko eskudunaren eta erabiltzailearen artean, erabiltzaileak berriaz eskatuz gero. Zerbitzuak emateko eskumenak dituzten administrazioen ardura izango da finantzazio-aukerak erabakitzea eta aplikatzea.

2.- Halaber, aurreko atalean aipatutako egoitzen eta zerbitzuen kasuan, ordaindu beharra dutenek prezio publikoa ordaintzeko adina diru-sarrerarik ez dutela frogatzen badute eta daukaten ondarea diru bihurtzea zaila edo ezinezkoa bada, ordainketaren atzerapen partziala lor dezakete, aurrez eskabidea aurkeztuta. Atzerapen horiek ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen interesa sortuko dute, eta ez dira aplikatuko egonaldi laburretan. Hala, egonaldi laburra esaten zaio egoitzan denbora mugatu bat egoteari, betiere erabiltzailearen premien arabera.

3.- Ordainketa partzialki atzeratzen zaien pertsonak zorra aitortu behar dute, zerbitzua emateko eskumena duen Administrazioak erabakitako maiztasunarekin.



4.- Partzialki atzeratuko ez den parte erabakitzeko orduan, norberarentzako kopurua errespetatu behar da.

5.- Finantzazio-aukerak eta ordainketaren atzerapen partzialak zabaldu egin daitezke desgaitasunak dituzten pertsonentzako eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako zerbitzuetara edo egoitzetara.

### **17 artikulua.- Zorra aitortzea**

1.- Ordaindu beharra duten pertsonak zorra aitortu behar dute egoitzan edo ostatuan sartu baino lehen, eta, salbuespen gisa, sartu ondoren, baldin eta frogatzen bada nabarmen aldatu dela erabiltzailearen egoera ekonomikoa.

2.- Zerbitzua emateko eskumena duen administrazio publikoak zorra aitortzeko agiri eguneratu bat bidaliko die ordaindu beharra duten pertsonari urtero, ordura arte zor duten kopurua zein den jakin dezaten. Agiri bakoitzean metatuz joango dira ekitaldi horretan eta aurrekoetan sortutako zorrak.

3.- Dena dela, zorra aitortzeak eta ordaintzeko konpromisoak berekin dakar norberaren ondasunak besterendu ezina eta ekonomia- eta ondare-mailako eskubideei uko egin ezina, zerbitzua emateko eskumena duen administrazio publikoak aurrez baimena eman ezean, zorra kitatu artean. Hori ez betetzeak ordaindu gabeko kopurua exijitzea eragingo du, bai eta zorra aitortzearen ondorioak amaitzea ere.

4.- Zerbitzua emateko eskumena duen administrazio publikoak berme bat exijitu ahal du, zuzenbidean aitortutako edozein modutan, aitortutako zorra edo sor daitekeena ordainduko dela ziurtatzeko, non eta ez den baliabiderik eza hautematen.

5.- Zorra aitortutako kasuetan, edozein arrazoiengatik zerbitzua ematea amaitzean, eskumena duen administrazio publikoak ordaindu beharra dutenei jakinaraziko die zein den geratzen den zorra, bai eta printzipala ere, sortutako interesak eta ordaintzeko edo kobratzeko dauden erreziboak, eta hura kitatzeko epea. Azken data horretatik aurrera, zorrak berandutze-interesak sortuko ditu.

6.- Metatutako eta aitortutako zorragatik sortutako interesak kalkulatzeko erreferentea diruaren legezko interesa izango da.

7.- Ordaindu beharra duten pertsonen ondasunez baliatu beharra dagoenean zorra kobratzeko, etxebizitza ez da kontuan hartuko zerbitzuan baja eman eta bertan bizi beharra dagoenean, edo hura denean ohiko bizileku bakarra ezkontidearentzat, arbasoentzat edo lehen mailako ondorengo zuzenentzat beste familia-unitaterik osatzen ez badute, eta osatuta ere % 33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua badute.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA**

#### **Bakarra.- Erabilera libreko urteko gutxieneko kopurua telelaguntza-zerbitzuan**

Eusko Jaurlaritzaren eskumena den telelaguntzaren kasuan, norberarentzako kopurua izango da indarrean dagoen Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren % 100, urteko konputuan.

## **AZKEN XEDAPENA**

### **Bakarra.- Indarrean jartzea**

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean.